

27. ALDIZKARIA - 2018ko otsailaren 7a

IRURTZUN

Udal ordenantza, Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzea arautzen duena. Behin betiko onespena

Irurtzango Udalak, 2017ko urriaren 3an egin osoko bilkuran, aldaketa hasiera batean onetsi zuen Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzea arautzen duen udal ordenantzaren. 2017ko 210. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, urriaren 31n.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluari jarraikiz, eta jendaurrean egoteko epea inork alegaziorik aurkeztu gabe iraganik, ordenantza hori behin betiko onetsi eta osorik argitaratzeko agindu da, behar diren ondorioak izan ditzan.

Irurtzunen, 2017ko abenduaren 29an.–Alkatea, Aitor Larraza Carrera.

UDAL ORDENANTZA, ANIMALIA ARRISKUGARRIAK ETA BERTZELAKOAK EDUKITZEA ARAUTZEN DUENA

1. artikulua. Xedea.

Ordenantza honen xedea da Irurtzango udalerrian egokitu eta aplikatzea abenduaren 23ko 50/1999 Legea eta hura garatzeko martxoaren 22ko 287/2002 Errege Dekretua, Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak eta bertzelakoak edukitzeko araubide juridikoari buruzkoa.

2. artikulua. Definizioa.

Arriskutsuak izan daitezken animaliatzat hartuko dira, 50/1999 Legean eta 287/2002 Errege Dekretuan aipatzen direnez gain, ondotik zehazten diren hauek:

1.–Izatez basa direnetakoak izanik, etxeko edo lagun egiteko erabiliz, pertsoneri nahiz bertze animalia batzuei lesioak eragin edo heriotza eman diezaieketen espezie edo arrazatakoak direnak, eta ondasunei kalte egiten ahal diotenak, erasokorrak izan ala ez.

2.–Honako arraza hauetako zakurrak: american staffordshire terrier, pitbull terrier, Mallorcako ausiki zakurra, Kanarietako ausiki zakurra, artzanor napolitarra, bullmastiff, dobermann, tosa japoniarra eta rottweiler. Horietaz gain, oro har, arraza horien ondorengoak izanik, beren ezaugarri etnikoak dituztenak eta beren gurutzatzeak.

3.–Edozein espezieetakoak izanik, eraso eta defentsarako berariaz erakutsi edo heziak izan diren animaliak.

4.–Edozein espezieetakoak izanik, behin bederen pertsonaren bati eraso egin diotenak.

Animaliak dituztenek haiek identifikatzeko dokumentazioa izan beharko dute, osasun egoera nahiz immunizazioak ere bertan aipatzen direla, eta Udalaren zerbitzuei erakutsi beharko diete, eskatzen baldin bazaie.

3. artikulua. Lizentzia.

1.–Ordenantza honetan oinarriturik arriskugarri gerta daitezkeenen artean sartzen den animalia baten jabe edo edukitzaileak lizentzia berariazkoa izan beharko du. Animalia eskuratu baino lehen eskatu beharko da lizentzia, aurreko artikuluen 1., 2. eta 3. apartatuetako kasuetan, eta 4. apartatuko kasuan, berriz, 5 eguneko epearen barrenean, animaliak pertsonaren bati eraso egin dionetik hasita.

2.–Lizentzia eskuratzeko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

a) Adinez nagusi izatea eta ez egotea ezindurik animalia behar bezala zaintzeko.

b) Ez izatea inoiz kondenatua honako delitu hauetakoren batengatik: homizidioa, lesioak, torturak, askatasunaren edo osotasun moralaren aurkakoak, sexu-askatasunaren eta osasun publikoaren aurkakoak, lotura talde armatu batekin edo droga trafikoarekin. Ildo beretik, arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko eskubideaz gabetua ez egotea epaile baten ebazpenengatik. Aurrekari penalen ziurtagiriaren bidez frogatuko da.

c) Animalia arriskutsuak edukitzearen inguruko arau-hauste astunengatik edo oso astunengatik zehatua ez izana, lizentzia aldi baterako eteteko zehapena izan ezik, hura osorik bete bada.

d) Ahalmen fisikoaren eta gaitasun psikologikoaren ziurtagiria, arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko.

e) Egiaztatzea erantzukizun zibileko aseguru bat egin izana, animaliek hirugarrenei egiten ahal dizkieten kalteengatik, bederen urtebeteko iraupena eta gutxienez ehun eta hogeita mila (120.000) euroko zenbatekoa duena.

f) Udal tasa ordaintzea. Udal tasa urtero eguneratuko da, Nafarroako KPIaren arabera.

3.-Lizentzia eskatzera beharturik daude arriskutsuak izan daitezkeen animalien jabe edo edukitzaileak, baldin eta Irurtzungo udalerrian bizi badira edo haiek salerosi nahiz trebatzeko jarduera bertan egiten bada. Era berean, lizentzia hau eskatu beharko dute animalia arriskutsuen jabe edo edukitzaileak, animaliak bi hilabetez bederen Irurtzungo udalerrian egon behar badu.

Arriskutsuak izan daitezkeen animalien jabe edo edukitzaileak betebehar hori izatea alde batera utzirik, edozein herritarrek komunikatzen ahalko dio Irurtzungo Udalari mota honetako animaliak dituzten pertsonak badirela, Udalak legeen arabera bidezkoak diren urratsak eman ditzan.

4.-Lizentziak 3 urteko iraupena izanen du, eta indarrik ez galtzeko beharrezkoa izanen da hura eskuratzeko eskatu ziren betebeharrei eustea denbora horretan guztian.

Hala ere, Udalak egiaztatzen ahalko du, ofizios edo salaketaren ondorioz, arriskutsua izan daitekeen animalia jabe edo edukitzaileak eusten ote dien lizentzia eskuratzeko betebeharrei, eta, ikuskapena egin ondotik, egiaztatzen bada arriskutsua izan daitekeen animalia jabe edo edukitzaileak ez duela betetzen baldintzaren bat, kontsideratuko da ez duela lizentziarik animalia edukitzeko eta hasiera emanen zaie behar diren legezko ekintzei.

4. artikulua. Arriskutsua izan daitekeen animalia jabe, hazle eta edukitzailearen betebeharrak.

Arriskugarri gerta daitezkeen animalien jabe, hazle eta edukitzaileak honako betebehar hauek dituzte:

a) Arriskutsua izan daitekeen animalia edukitzeko lizentzia eskuratzeko, ordenantza honetan zehazten diren epeetan.

b) Lizentzia eskuratzeko ordenantza honen 3. artikuluko 2. apartatuan aipatzen diren baldintzei eustea eta haiek galdu direla komunikatzea.

c) Erregistroan sartzea arriskutsuak izan daitezkeen beren animalia guztiak, ordenantza honetan ezartzen diren epeen barrenean.

d) Udalari animalia jabearen lapurreta edo galeraren berri ematea, gertatzen denetik bost eguneko epean, baita hura bertze inori utzi edo saldu zaiola ere, edo hil egin dela, hamabost eguneko epean, identifikaziorako datuak emanda.

e) Animalia eskuratzeko unean, bertze jabe baten izenean zentsaturik baldin badago, jabe berriak, eskuratu aitzinetik, arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko lizentziaren jabe izan beharko du, eta Udalari komunikatu beharko dio, eskuratzen duenetik hasi eta bost eguneko epean gehienez, animalia jabe aldaketa gertatu dela.

f) Erregistroko datuetan gertatzen den bertze edozein aldaketa ere jakinarazi beharko da, gehienez ere hamabost eguneko epean.

g) Animalia zikiratu edo antzutu dela jakinarazi beharko du, hala jabeak eskaturik gertatzen denean nola administrazio nahiz epaitegiko agintariaren ebazpen edo aginduaren ondorioz egiten bada.

h) Arriskutsuak izan daitezkeen animalien erregistroan aurkeztu beharko ditu, urtea bukatu baino lehen, albaitariaren urteroko azterketa frogatzen duen agiria eta mota honetako animaliak edukitzeak dakartzan arriskuetatik babesteko formalizatzen den aseguruaren eta erantzukizun zibileko sariaren kopia konpultsatuak.

i) Arriskutsua izan daitekeen animalia bat Irurtzungo udalerrira ekartzen bada, mugarik gabe edo bi hilabetez goitiko denbora baterako, jabea beharturik egonen da Arriskutsuak izan daitezkeen animalien erregistroan sartzera. Animalia jabearen egonaldia hiru hilabetez behetik bada, edukitzaileak frogatu beharko du bere ohiko bizilekuan betetzen duela arriskutsuak izan daitezkeen animalien gaineko araudia, eta higijene nahiz

osasunerako eta hiritarren segurtasunerako neurriak hartu beharko ditu.

j) Oro har, animaliak edukitzeari buruz bete behar diren obligazio guztiak bete beharko dituzte.

Betebehar horietarako epea kasu bakoitzean zehaztuko da, eta, eperik zehazten ez bada, hamabost egun izango da.

5. artikulua. Erregistroa.

Arriskutsuak izan daitezkeen animalien jabeek Irurtzungo Udalari eman beharko dizkiote hurrengo datuen berri, Erregistroan inskribatzeko:

a) Animaliaaren espeziea.

b) Animaliaaren identifikaziorako zenbakia, hala behar bada.

c) Arraza. Gurutzatu ondoko lehenbiziko belaunaldikoa bada, jatorriko arrazak aipatuko dira.

d) Sexua.

e) Jaiotze data.

f) Animaliaaren ohiko bizilekua, zehazturik gizakiekin batera edo bertzela biziko ote den, alegia, zaintza, babes edo aipatzen den halako bertze xede baterako den.

g) Jabearen izena, helbidea eta NANA.

h) Animaliaaren haztegiaren edo sorlekuaren datuak.

i) Albaitari kolegiatu baten urteroko azterketak, zeinetan frogatuko baita animalia osasunez nola dagoen, bereziki arriskutsu bilakatzen duen eritasun edo nahasterik ez duela, ez eta borroketan nahiz bertzelako jarduera debekatuetan erabilia izatearen ondoriozko lesio edo orbainik ere.

j) Hezi duten zentroko datuak, halakorik bada.

k) Eraso kasuak.

l) Mikrotxip identifikagarria paratua duela dioen agiria.

Datu horiek denak Erregistroan sartuko dira eta aldaketarik gertatzen bada, jabeak haren berri eman beharko du, erregistroan sartu behar den aldaketa gertatu ondoko hamabost eguneko epean, eraso kasuetan izan ezik, halakoetan berehala komunikatu behar baita.

6. artikulua. Segurtasun neurriak.

1.–Eremu publikoetan, higiezin kolektiboetako eremu amankomunetan, garraio publikoetan eta, oro har, erabilera publikorako diren toki eta eremuetan, ordenantza honetan aipatzen diren zakurrak eramanen dira gehienez ere bi metroko luzera duen katearekin edo uhal luzaezinarekin lotuta eta muturrekoa jantzia dutela (homologatua eta zakurraren arrazari egokitua). Inoiz ere ezin izanen dira eraman pertsona bakoitzeko zakur hauetako bat baino gehiago eta adin txikikoek ezin izanen dituzte inola ere eraman.

2.–Arriskutsuak izan daitezkeen zakurrak dituzten instalazioek ezaugarri hauek izan beharko dituzte, animaliak handik atera eta hirugarrenei kalterik egin ez diezaieten:

a) Hormek eta hesiek behar adinako altuera eta sendotasuna izan beharko dute. Orobat, tinko egon beharko dute, animaliaaren pisuari eta presioari eusteko.

b) Instalazioetako ateez inguruko gainerakoa bezain sendoak eta eraginkorrak izan beharko dute, eta haien diseinuaren bidez saihestu beharko da animaliek beraiek segurtasun mekanismoak erauzi edo ireki ahal izatea.

c) Barrutiak behar bezala seinalatua egon beharko du, mota horretako zakurrak daudela ohartarazteko.

3.–Irurtzungo Udalak egokiak iruditzen zaizkion neurriak hartuko ditu herritarrek edozein salaketa jarritakoan, animaliek eremu publikoan nola pribatuetan beldurra, estresa, jazarpena eta abar eraginez gero.

Bildutako zakurra berreskuratzeko, jabeak 24 orduko epea izanen du jakinarazten zaionetik. Behar baldin bada, txertoaren egutegia eguneratzera beharturik dago eta udal txakurtegiaren sortutako gastuak ordaintzera, baita gerta daitezkeenak ere. Bertzelakoan, Nafarroako Gobernuaren txakurtegiaren eramanen da, eta bertan eduki legeak agintzen duen epea bete arte.

4.–Udalaren osasun zerbitzuek eraman eta konfiskatuko dituzte behin eta berriz arau-hausteak egin eta eragozpenak sortzen dituzten animaliak Agintaritzaren eskudunak eman beharko du animalia etxetik ateratzeko eta dekomisatzeko agindua, eta animalioek Udalaren esku geldituko dira. Zakurra zuzen identifikatua badago, jabeari gatzigatuko zaio eta hark, biltzeko, 24 orduko epea izanen du jakinarazten zaionetik. Behar baldin bada, txertoaren egutegia eguneratzera beharturik dago eta udal txakurtegiaren sortutako gastuak ordaintzera, baita gerta daitezkeenak ere. Bertzelakoan, Nafarroako Gobernuaren txakurtegiaren eramanen da, eta bertan eduki

legeak agintzen duen epea bete arte.

5.–Abandonatuak dauden zakurrak bildu eginen ditu Udalaren bilketa zerbitzuak eta hogeita lau orduz zainduko. Epe hori iragan eta jabeek ez badituzte animaliak berreskuratu edo, haien baimena izanik, ez bazaizkie hirugarrenei ematen, animaliak biltzeko Nafarroako Gobernuaren zerbitzuaren esku geldituko dira.

Nafarroako Gobernuaren txakurtegiak egungo legeriari jarraituko dio, animaliak hil, esleitu edo gordetzeari dagozkion afera guztietan.

Nafarroako Gobernuaren txakurtegian sartzen diren zakurren elikadura eta zainketa gastuak jabeen edo hartzaile berrien kontura izanen dira. Dagokiena ordaindu gabe ezin izanen dute animalia eskuratu.

7. artikulua. Arau-haustek.

Abenduaren 24ko 50/1999 Legean aipatzen direnez gainera, honako hauek ere arau-hauste administratibo larritzat jotzen dira:

1.–Arriskutsua izan daitekeen animalia lotu gabe, edota muturrekorik gabe edo adin txikiko batek daramala erabilera publikoko eremuetan edo toki publikoetan barna ibiltzea.

2.–Eginez edo ez eginez, arriskutsua izan daitekeen animaliarik bide ematea eraso egiteko pertsonari edo bertze animalia batzuei, edota kalte egiteko, bertzenaz, edozein ondasuni, hala eremu publikoan nola leku pribatuetan, erasoaren unean eta/edo aitzinetik halakorik ez gertatzeko behar diren neurriak hartu gabe.

3.–Irurtzango Udalaren aginduren bat zehazten den epetik kanpo betetzea.

4.–Ordenantza honetan ezartzen diren betebeharrak epetik kanpo betetzea, non eta ez-betetze hori ez den hartzen 50/1999 Legearen aurkako arau-haustetzat.

Arau-hauste administratibo arintzat hartzen da ordenantza honen 7. artikuluko edozein apartatutan xedatzen dena ez betetzea.

8. artikulua. Zehapenak.

50/1999 Legean eta ordenantza honetan ezarritako arau-haustek zehatuko dira 50/1999 Legean edota horren ordeztan indarrean legokeen arauan ezarritako isunekin.

Erantzulea izanen da arriskugarri gerta daitekeen animalia jabea edo edukitzailea, hau da, esku hartzeagatik edo ez hartzeagatik arau-haustean parte hartu duena.

Zehapenak ezartzerakoan honako irizpide hauek hartuko dira kontuan, isunen zenbatekoa graduatzeko eta zehapen osagarriak ezartzeko:

–Egindako arau-haustek gizartean zer eragin izan eta zer kalte egin duen.

–Irabazte asmo bidegabekorik izan den eta arau-haustean zer etekin atera den.

–Arau-haustek errepikatu diren edo haietan berrerori ote den.

Berriz ere araua hautsi dela ulertuko da, baldin eta animaliarik edo animalia edukitzaileari zehapena ezarri bazaio bi aldiz gutxienez, animaliak edukitzeari buruzko araudia hausteagatik.

Zehapena mailarik gorenean ezarriko da urtebete natural berean arau-haustea berriz gertatzen bada.

9. artikulua. Datu pertsonalen babesa.

Datu pertsonalei buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera, aditzera ematen da:

Ordenantza honek indarra hartzen duenean, datu pertsonalen fitxategi bat izango dela, arriskutsuak izan daitezkeen animalien jabeak edo edukitzaileak erregistratzeko.

Fitxategia egingo da Irurtzango Udalak bete ditzan 50/1999 Legeak udalen esku uzten dituen obligazioak. Fitxategia Irurtzango Udalak bakarrik erabili ahal du. Ordenantza honetan aipatzen diren datu pertsonalak ematea nahitaezko betebeharra da.

Ordenantza honetan aipatzen diren datu pertsonalak ematen dituen pertsonak onartzen du haiek erabil daitezkeen artikuluko honetan zehazten den xedearekin.

Datu pertsonalak emateari uko eginez gero, artxibatu egingo da lizentziaren espedientea.

Artxiboan erregistraturik dauden pertsonen badute eskubidea datuak sartu, zuzendu, deuseztatu eta aurka egiteko.

Datuak deuseztatze eskubidea aurkeztuz gero, galdu egingo da animalia arriskutsua edukitzeko lizentziari eusteko eskubidea.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Bakarra.–Arriskutsua izan daitekeen animalia bat lehendik dutenek hiru hilabeteko epea izanen dute, ordenantza honek indarra hartzen duenetik, aipatzen diren baldintzak bete eta dagokien lizentzia eskuratzeko.

AZKEN XEDAPENAK

Lehen.–Ordenantza honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Bigarrena.–Ordenantza honetan aurreikusi gabeko orotan aplikatuko da Arriskutsu Gerta Daitezkeen Animaliak Edukitzeko Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 23ko 50/1999 Legean eta hura garatzen duen martxoaren 22ko 287/2002 Errege Dekretuan xedatua, edo haien ordezkari direnak, baita arautzen diren gaietan aplikatzen ahal diren xedapen guztiak ere, Udalaren erabakiak baino maila handiagokoak badira.

ERANSKINA

Tasa hauek ezarri dira:

1. Zakur abandonatuak jasotzea: 18 euro.
2. Egonaldia udal txakurtegia: 6 euro egunean.
3. ordutik goiti, egun osotzat hartuko da.
3. Lizentziaren tramitazioa: 20 euro.

Iragarkiaren kodea: L1800033